

1 MAILA

Gaia garatu: Txakurrak gure hirietan. Prestatuak gaude beraiekin bizitzeko?



EGOERA

Gaur egun, gero eta txakur gehiago ikusten ditugu gure hirietan, eta mota guztietakoak. Eta horrek batzuei beldurra eta kezka sortzen die. Beste askoren ustez, ordea, txakurrak maitagarriak dira eta pertsonentzat dauden lagunik onenak. Baina gure hiriak ondo egokituta al ditugu txakurrentzat? Nola egin behar da hiritarrak eta txakurrak elkarrekin bakean bizitzeko?

EGITEKOA

Azaldu gaur egun txakurrekin gure hirietan zer arazo ditugun (txakur arriskutsuak, uzten duten zikinkeria, beraientzako guneen falta ...) eta zer egin behar den zure ustez, txakurrak eta hiritarrak elkarrekin gustura bizitzeko (txakurrentzako guneak, araudi zehatz bat, zakarrontziak, txakurren heziketa, ...) Azaldu ea zuk txakurrik edo beste etxeko animaliarik baduzun eta horrek zer abantaila eta desabantaila dituen. Zer hartu behar da kontuan txakur bat etxera ekartzeko? Normalean arduratsuak gara beraiekin?

Gaia prestatu ondoren, 2 minutu dituzu honetaz hitz egiteko.

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Txakur batekin bizitzeak zer abantaila eta desabantaila ditu?

Askorentzat txakur bat etxean izateak alde on asko ditu. Zaharrei konpainia egiten die, umeentzat lagunik onena izan daiteke, eta abar. Baina, txakur bat izan baino lehen, komeni da baldintza batzuk kontuan hartzea: etxe espaziotua den, zaintzeko denbora, animaliak asko gustatzea ,... Gainera, arreta eta erantzukizun handia behar da txakur batekin bizitzeko .



Haurrek animaliekin arduratsu jokatzek ikasten dute



Txakur bat zaintzeko ardurak eta arreta handiak eskatzen ditu.



Oporretara goazenean zaila da askotan txakurra uzteko tokia aurkitzea.



Pertsona helduentzat konpainia eta laguntza ona izan daiteke.

GALDERA OSAGARRIAK

- Hiri eta herrietan txakurrak aske eramateko gune bereziak eskaini behar dira, zure ustez?
- Batzuen ustez, beharrezkoa da txakur arriskutsuentzako araudi berezia egotea. Ados zaude?
- Txakurra gizakiaren lagunik onena omen da. Zuk horrela uste duzu? Eman arrazoiak.
- Zer abantaila ditu maskota bat etxean izateak? (konpainia egiten du, etxea zaintzeko egokia da, umeek arduratsu izaten ikasten dute ...)
- Askok dira txakur bat edukita, arduragabekeriaz jokatzek dutenak? Ezagutzen duzu kasurik?

HIZTEGI LAGUNGARRIA

ADOS NAGO ZUREKIN. Estoy de acuerdo contigo.
AISIALDIA.- Denbora libre. Tiempo de ocio.
ANIMALIA ARRISKUTSUAK.- Arriskua sortzen duten animaliak.
ARAU/ ARAUDI. norma, lege/ erregelamendu.
ARAU/ ARAUDI.- norma, lege/ erregelamendu.
ARDURA.- Erantzukizun. Responsabilidad.
ARDURAGABEKERIA.- Irresponsabilidad.
BAZTERTU/BAZTERREAN UTZI.- Alde batera utzi.
ELKARBIZITZA.- Elkarrekin bizitzea.
ETXEKO ANIMALIAK.- Maskotak.
ISUNA.- Multa.
NAHIAGO IZAN/HOBE DA./GEHIAGO GUSTATU- Preferir/Es mejor/Gustar más (konparaketak).
TXAKUR HEZITZAILEA.- Txakurrei irakasten diena.
TXAKURREN ZAINZA.- Txakurrak zaintzea.
UHALA.- Correa.
ZAINZAILA.- Norbait edo zerbait zaintzen duena.

IDEIA OSAGARRIAK

- Gure hirietan txakurrentzako gune aproposak behar ditugu.
- Garrantzitsua da txakurrak ondo hezita egotea. Horrela arazo asko saihestu daitezke.
- Txakurrak baditugu, arduratsu jokatu behar da beraiekin, eta txakur bezala tratatu, ez pertsona bat balitz bezala.
- Txakur arriskutsuentzako araudi egoki bat behar da, erasoak eta hozkadak saihesteko.
- Adineko pertsonen txakurrak konpainia handia egiten die, eta bizitza aktiboagoa egiten laguntzen die, gainera.

Gai honen inguruan IKASBIL atarian aurkituko dituzun beste material batzuk:

1702501 [Maskotak: erantzukizun handia eta baldintzarik gabeko maitasuna](#)

2123011 [Gero eta txakur gehiago](#)

1549049 [Txakurren zaintzarekin eztabaida piztu da](#) (bideoa)

1316045 [Nolako txakurra, halako jabea](#)

487270 [Etxe-abereak trenean.](#)